



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN TXOSTENA, EUSKAL HERRIKO NEKAZARITZA INGENIARI TEKNIKOEN ELKARGOAREN ESTATUTUEI BURUZKOA

Osoko Bilkura

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, lehendakaria

Natividad Goñi Urriza andrea, mahaikidea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, mahaikidea

Idazkaria: Ibon Alvarez Casado jauna

Aurkibidea:

I. AURREKARIAK.....	2
II. LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN ESKUMENAK ETA AURRETIKO HAUSNARKETA JURIDIKOAK.....	2
III. LEHIARI BURUZKO ARAUDIAREN GAINEKO HAUSNARKETAK.....	4
1. Elkargora nahitaez bildu beharra.....	4
2. Elkargora atxikitzeko behar diren tituluak.....	6
3. Elkargo bakar bateko kide izatea.....	6
4. Antolamendua, helburuak eta eginkizunak.....	7
5. Perituen zerrenda.....	8
6. Ordainsariak.....	8
7. Lanbide profesionalen txandak.....	10
8. Ikus-onespenak.....	10
9. Kode deontologikoa.....	11
IV. ONDORIOAK.....	11

1. Lehiaren Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkurak, arestian aipatutako osaera duenak, Euskal Herriko Nekazaritza Ingeniari Teknikoen Elkargoaren Estatutuei buruzko txosten hau eman du 2013ko uztailaren 24ko bilkuran.



I. AURREKARIAK

2. 2013ko urtarrilaren 18an, Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio Sailak idazki bat aurkeztu zuen Lehiaren Euskal Agintaritzaren aurrean, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritzako Ingeniari Teknikoen eta Nekazaritzako Perituen Elkargo Ofizialaren Estatutuen aldaketari dagokionez, Lehiaren Euskal Agintaritzak jakinaraz dezan ea aldaketa lehia babesteari buruz indarrean dagoen araudiarekin bat datorren.

2009ko uztailaren 14an eta 2010eko apirilaren 27an, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak hainbat txosten egin zituen Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritzako Ingeniari Teknikoen eta Nekazaritzako Perituen Elkargo Ofizialaren Estatutuak aldatzeari dagokionez, betiere Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiaren Bizkaiko eta Gipuzkoako APlen 04/2008 Ebazpenean xedaturikoa kontuan hartuta.

II. LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN ESKUMENAK ETA AURRETIKO HAUSNARKETA JURIDIKOAK

3. Otsailaren 2ko 1/2012 Legeak, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzkoak, 3.3. eta 10.n artikuluetan erakundeari lehia sustatzeko ematen dizkion eskumenak erabiliz egin dugu txosten hau. Horrelako eskumenen helburua da Euskadiko merkatuetan benetako lehia sustatzea (eta, ahal dela, bermatzea). Horretarako, zigorrak ez diren neurriak hartzen ditu Lehiaren Euskal Agintaritzak eta, horrelako neurrien esparruan, besteak beste, administrazio publikoekin harremanetan jartzen da.

4. Gure antolamendu juridikoak profesionalen elkargoei buruz arautzen duena Espainiako Konstituzioan oinarritzen da. Hain zuzen ere, zera xedatzen du Konstituzioko 36. artikulua: «Legeak lanbide-elkargoen araubidea ezarri eta tituludun lanbideen jarduera arautuko du. Elkargoen barne-egiturak eta jardunbideak demokratikoak izan beharko dute».



Premisa hau izan behar dugu abiapuntu: elkargodun lanbideetan aritzen direnek lehia askean aritu behar dute, eta Lehia defendatzeko 15/2007 Legea bete behar dute, bere osotasunean¹. Lehiari buruzko araudiarekiko mendekotasuna are gehiago nabarmendu da Erkidegoko Zerbitzuen Zuzentaraua aplikatu ostean sortu diren araudiaren aldaketa berriak direla eta². Estatuan nahiz EAEn, profesionalen elkargoei buruzko araudia zuzentarau horren aurretiko beste lege batzuetan oinarritzen da, profesionalen elkargoei buruzko Estatuko 1974ko Legean eta Euskal Autonomia Erkidegoko tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko 18/1997 Legean, alegia. Dena den, une honetan Zuzentarauaren estatuko nahiz autonomia erkidegoko hainbat transposizio-arau daude eta horiek aldaketa ugari eragin dituzte arau horietan, eta beraz, baita profesionalen elkargoen funtzionamendu-araubidean ere, Paraguas (17/2009) eta Omnibus (25/2009) Legeetan edo EAEko 7/2012 Legean batik bat.

Azaroaren 21eko 18/1997 Legearen xedea da «tituludun lanbideek Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean aurrera daramaten jarduna eta lurralde horretan bertan diharduten elkargo eta kontseilu profesionalak arautzea. Oinarrizko legerian eta/edo arlo horretako legerian jartzen duena ere kontuan hartu beharko da». Zioen azalpenak dioenez, Euskal Autonomia Erkidegoak bakarrik dituen eskumenak erabiliz egindakoa da araudia, Espainiako Konstituzioko 139. artikuluari kalte egin gabe betiere. Hain zuzen ere, zera xedatzen du Konstituzioko arau horrek: «Ezin du inolako agintarik neurririk hartu, baldin eta neurri horiek, zuzenean edo zeharka, oztopatzen badute Espainiako lurralde osoan gizabanakoek askatasunez zirkulatzea eta bertan ezartzea, eta ondasunek askatasunez zirkulatzea».

Horrenbestez, azaroaren 21eko 18/1997 Legeak arautzen du Elkargoa; zehazki, 2012an Legea Europako Erkidegoko araudira egokitzeko egindako aldaketen arabera testuak. Izan ere,

¹ 15/2007 Legea, uztailaren 3koa, Lehia defendatzekoa.

² Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentaraua, barne-merkatuko zerbitzuei buruzkoa.



arauaren bederatzigarren xedapen gehigarriak xedatzen duenez, «elkargo profesionalen erregimenaren oinarriak arautzen dituzten aginduak bere osoan edo zati batean jasotzen dituzten lege honetako atalak legegintza-sistematikari jarraitzeagatik sartu dira testu honetan. Horren ondorioz, atal horiek ere aldatutzat joko dira agindu haiek aipatu den oinarritzko araudian birmoldatzen diren unean.»

Elkargoek araudiari men egitea ez da estatutuen eta elkargoen beste arau batzuen (barne-araubideen, prozeduren, araudi deontologikoen...) hitzez hitzezko testuak araudiari men egitea bakarrik. Aitzitik, elkargoen jardun guztiak araudiari men egitea ere bada. Hori dela eta, estatutuen testua gorabehera, elkargoek ezin dute onartu lehia mugatzen duen erabaki edo gomendiorik, eta ezin dute ezarri horrelako betebeharrak edo eskakizunik, lehia babesteko legedia urra bailezakete³.

III. LEHIARI BURUZKO ARAUDIAREN GAINEKO HAUSNARKETAK

1. Elkargora nahitaez bildu beharra

6. Aztertutako estatutuen 1. artikuluan elkargora nahitaez bildu beharra jasotzen da nekazaritzako teknikari edo nekazaritzako peritu gisa jardun ahal izateko baldintza gisa; halaber, nekazaritzako ingeniariaren edo nekazaritzako perituaren titulua izatea eskatzen da elkargoko kide egin ahal izateko. Gainera, nekazaritzako ingeniari teknikoarekin loturiko arloak edo gaiak lantzen dituzten beste langile unibertsitate-tituludun batzuk ere txertatu ahal izango dira elkargora, hala nahi izanez gero; dena den, Kontseilu Nagusiak horiek onetsi beharko ditu, betiere nahitaez bildu behar duten profesionalen elkargo zehatzik ez badago.

Zerbitzuen Zuzentaraua zerbitzu-jardueretara oztoporik gabe iristeari eta zerbitzuetan oztoporik gabe jarduteari buruzko azaroaren 23ko 17/2009 Legearen bidez (Paraguas Legea) egokitu

³ LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA, Profesionalen elkargoei buruzko txostena Zerbitzuen Zuzentaraua egokitu ostean, Madril, 2011. 22. orria eta hurrengoak.



zen Espainiako ordenamendu juridikora. Paraguas Legearen arabera, baimentze-araubideek —elkargora nahitaez bildu beharrak, esaterako— kokalekua ezartzeko askatasuna mugatzen dute, eta beraz, behar bezala bete behar dituzte premia, proportzionaltasun eta diskriminaziorik ezaren baldintzak.

Bestalde, zerbitzu-jardueretara oztoporik gabe iristeari eta zerbitzuetan oztoporik gabe jarduteari buruzko Legea egokitzeko hainbat lege aldatzen dituen abenduaren 22ko 25/2009 Legeak (Omnibus Legea) Paraguas Legea egokitu zuen Estatuko lege-araudia, arlo desberdinetako Estatuko 47 lege aldatuz. Profesionalen elkargoei dagokienez, Omnibus Legearen 5. artikulua profesionalen elkargoei buruzko 2/1974 Legea eta elkarte profesionalari buruzko martxoaren 15eko 2/2007 Legea aldatu zituen, oro har, zerbitzu-jardueretara oztoporik gabe iristeko eta zerbitzuetan oztoporik gabe jarduteko mugak ezabatuz. Nolanahi ere, Omnibus Legeak ez zituen jarduera-erreserbak eta elkargoko kide egin beharra aldatu. Honela dio arau horren laugarren xedapen iragankorrak: «Hamabi hilabeteko epean, Gobernuak lege-proiektu bat igorriko die Gorte Nagusiei, eta bertan, elkargoko kide izatea nahitaezkoa den lanbideak zehaztuko dira», baina lege-proiektu hori ez da oraindik gauzatu. Gainera, eta lege hori onartu bitartean (Zerbitzu Profesionalen Lege berria), Omnibus Legeak hura indarrean sartu zen egunean indarrean ziren nahitaez bildu beharreko lanbideak finkatzen ditu.

7. Zentzu horretan, eta Lehiaren Euskal Agintaritzak dioten moduan, txosten hau egin den egunean nekazaritzako ingeniari teknikoen elkargora nahitaez bildu beharra legezkoa izan arren, eskakizun horrek lehia eta jardun profesional askea mugatzen ditu, eta beraz, baita Espainiako Konstituzioaren 35.1 artikuluan aitortzen den lanerako eskubidea ere. Mota horretako mugek interes publikoko eta ondasun juridikoen babeserako arrazoi boteretsuetan bakarrik izan dezakete lege-oinarria, horiek elkargora nahitaez bildu beharreko lanbidearen jardun askea baino indar gehiago dutenean.



2. Elkargora atxikitzeko behar diren tituluak

8. Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritzako Ingeniari Teknikoen eta Nekazaritzako Perituen Elkargo Ofizialak ez du titulu bat bera ere baztertu lanbidearen jardunetik, baina 1. artikulua ez da behar bezain argia, eta gainera, beste profesional batzuk elkargora bildu beharra finkatzen du (Nekazaritzako Ingeniaritza Teknikoarekin lotutako arloak eta gaiak lantzen dituzten unibertsitate-tituludunak), Elkargoaren Kontseilu Nagusiak horiek onartu ahal izateko.

«Bolognako Prozesua» deiturikoak «tituluen katalogoa» desagerrarazi zuen, bide batez, unibertsitateei unibertsitate-titulu berriak sortzeko aukera emanez eta hala egitera sustatuz. Horrela, gaur egun ez dago titulu-kopuru itxi bat eta unibertsitateek titulu berriak proposatu ditzakete; horiek onetsi eta Ministroen Kontseiluak horien izaera ofiziala finkatu ostean, tituluak Unibertsitate, Ikastegi eta Tituluen Erregistroan inskribatzen dira.

Zentzu horretan, Lehiaren Euskal Kontseiluak partekatu egiten du Lehiaren Batzorde Nazionalak profesionalen elkargoei buruz egindako txostenean —Zerbitzuen Zuzentaraua egokitu ostean— jasotzen duen iritzia; haren arabera, lanbide bat gauzatu ahal izateko prestakuntza-baldintza jakin batzuk bete beharrak lehia mugatzen du, eta hori interes orokorreko arazoietan oinarritu daiteke. Dena den, lanbide horretan jarduteko gaitasun tekniko nahikoa duten profesional tituludunak lanbidetik kanpo uzteko arriskua saihestu behar da.

Horrenbestez, Estatutuen 1. artikulua berriz idaztea **gomendatzen** da, horrela, lanbidean jarduteko gaitasun tekniko nahikoa duten nekazaritzako ingeniari teknikoak, nekazaritzako perituen eta beste titulu ofizial batzuk ere gaineratu daitezten.

3. Elkargo bakar bateko kide izatea

9. Estatutuen **27. artikuluko** bigarren paragrafoaren arabera, lurralde nazional osoan jarduteko nahikoa izango da Nekazaritzako Ingeniari Teknikoen eta Nekazaritzako Perituen Elkargo bakar



bateko kide izatea. Hura izango da profesionalaren helbide bakarra edo nagusia, eta halakorik izan ezean, lanbidean jarduten den lekuaren helbidea.

Ildo beretik jarraituz, Profesionalen Elkargoen Legea aztertutako estatutuetan zehaztutakoa baino haratago doa. Izan ere, honako hau dio 3.3 artikuluan: «*lanbide batzuen kasuan, Autonomia Erkidego batzuetan baino ez daude profesionalen elkargoak; horrelakoetan, profesionalek beren helbide profesional bakarra edo nagusia duten lekuari dagokion legedia bete beharko dute, eta hori nahikoa izango da lurralde nazional osoan jarduteko*». Horrenbestez, elkargoko kide ez den profesional batek elkargora nahitaez bildu beharra jasotzen duen autonomia-erkidego batean jardun lezakete.

10. Horrela, bada, artikulua hori Profesionalen Elkargoen Legean jasotakoaren arabera egokitzea **proposatzen** da.

4. Antolamendua, helburuak eta eginkizunak

11. Estatutuetako **4. artikulua c) puntuaren** arabera, honako hau da Elkargoaren oinarrizko helburuetako bat: «*Lanbidea erakundeen aurrean eskusibotasunez ordezkatzea eta defendatzea*».

12. Profesionalen Elkargoen Legearen arabera, Korporazio horien oinarrizko xedea da, besteak beste, lanbidea erakundeen aurrean eskusibotasunez ordezkatzea, horiek elkargora nahitaez bildu beharra eskatzen dutenean.

13. Horrenbestez, Profesionalen Elkargoaren Lege berriak elkargora bildu beharra ez jasotzea erabakitzen badu, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritzako Ingeniari Teknikoen eta Nekazaritzako Perituen Elkargo Ofizialak bere estatutuak aldatu eta «eskusibotasunez» terminoa ezabatu beharko du.



5. Perituen zerrenda

14. Estatutuen **4bis artikuluko 1.a) puntuaren** hirugarren paragrafoan adierazten den moduan, elkargoak peritu gisa esku hartzeko eskatu daitezkeen elkargokideen zerrenda eskainiko die organo jurisdikzionaleri eta Herri Administrazioei, edo kide horiek zuzenean izendatuko ditu.

15. Paragrafo horren hitzetan ez da lehiarekiko inolako hutsegiterik hautematen. Halere, kasu bakoitzean zerrenda horiek egiteko erabili behar den metodoak eginkizun horiek gauzatzeko orduan oztopoak sor ditzakeela hartu behar da kontuan. Horregatik, elkargoak kontu handiz aukeratu behar ditu zerrendak egiteko edo peritu bat izendatzeko erabiliko dituen baldintzak, horiek gardenak eta ez diskriminatzaileak izateaz gain, nahi duten profesional guztiak sartzea ahalbidetu behar baitute. Lehiaren aurkako jarduketan adibide izango lirateke, esate baterako, zerrendak egiteaz arduratzen den elkargora nahitaez bildu beharra, beste zerrenda batzuetako kide izateko bateraezintasuna, eta prestakuntza-ikastaroak edo alde aurretiko lanbide-esperientzia luzea eskatzea⁴.

6. Ordainsariak

16. Estatutuen 4bis artikuluko 1.e) puntuan adierazten diren lanbidea antolatzeko eginkizunen artean, irizpide orientagarrien prestaketa agertzen da, kosten tasazioan sartzen diren peritueskubideak eta -ordainsariak kalkulatzeko ondorioetarako. Aurrerago, 10.e) artikuluan, eginkizun hori Elkargoaren Batzar Nagusiari dagokiola xedatzen da.

Artikulu horiek ez dute arazorik sortzen, hori baita, hain zuzen, Profesionalen Elkargoei buruzko Legean mantendu den ordainsari orientagarriak ezartzeko debeku orokorraren salbuespen bakarra. Dena den, baieztapen hori behar bezala zehaztu behar da, Profesionalen Elkargoei buruzko Legearen laugarren xedapen

⁴ Horrelako adibide bat dugu, esaterako, Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluaren 2009ko otsailaren 9ko Ebazpena, 637/08 espedientea duena, Valentziako Erkidegoko Peritu/Arkitektoena.



gehigarriak «*irizpide*» orientagarriei egiten baitie erreferentzia, eta ez «*baremo*» orientagarriei; hori dela-eta, kosten tasaziorako kontuan hartu behar diren elementu guztiak ulertu behar dira irizpide orientagarri gisa (eta abokatuen kontuei zin egiteko), eta ez irizpide horiek kasu zehatz bakoitzean aplikatzearen emaitza gisa, hau da, prezioa edo ordainsaria bailiran.

17. 4bis artikulua 1.j) puntuan jasotzen den moduan, Elkargoaren eginkizunetako bat da, elkargokideek modu askean eta berariaz hala eskatzen dutenean, ordain, soldata eta zerbitzu-ordainsarien kobrantzaz arduratzea, betiere elkargoak horretarako zerbitzu egokiak dituztenean eta Batzar Nagusian onetsitako Erregelamenduan zehazten den baldintzetan.

32.e) artikulua arabera, elkargokideen eskubidea da, ordainsarien kobrantza elkargoaren bitartez kudeatzea eta erreklamazioak egiteko elkargoaren babesak jasotzea, betiere araubidean finkatzen diren emaitzak betez.

Gai horrekin lotuta, eta 2/1974 Legearen 1997ko aldaketaren ondorioz, profesionalen elkargoek ezin dituzte beren kideak ordainsarien kobrantzak elkargoaren bitartez bideratzera behartu, eta beraz, aukera hori hautazko bihurtu da. Gaur egun, 2/1974 Legearen 5.p artikulua arabera, elkargoak beren kideek modu askean eta berariaz eskatzen dietenean bakarrik arduratuko dira ordain, soldata eta zerbitzu-ordainsarien kobrantzaz, betiere elkargoak zerbitzu egokiak dituztenean eta elkargo bakoitzaren estatutuetan zehazten diren baldintzetan.

Nolanahi ere, profesional-kopuru handi batek bere kobrantzak elkargoaren bidez bideratzeak eragin ditzakeen arriskuak azpimarratu behar dira, informazio hori hedatzeak tarifen homogeneousazioa erraztu baitezake.

Azkenik, eta ordainsarien kobrantza jarduera profesional oren berezko kontua denez, elkargoek mota honetako zerbitzuak eskaintzeko justifikazioen artean lehiaren aurkako ondorioak eta hautazko mekanismoak hartu behar dira kontuan.



7. Lanbide profesionalen txandak

18. Estatutuen **15.d) artikulua** arabera, Gobernu Batzordeek elkargoari eskatzen zaizkion jarduera profesionalen txandak antolatu ditzakete elkargokideen artean.

Puntu honetan, Elkargoak landutako peritu judizialen zerrendetarako adierazi duguna gogoratu behar dugu, eta era berean, txandak antolatzeko erabili diren irizpideen artean lehia faltsutzen duten elementuak sartzea saihestu behar dela azpimarratu behar da, horrela merkatua elkargokideen artean banatzeko sistemak sortzen baitira, baita diskriminatzaileak izan daitezkeen edo elkargokide jakin batzuei bakarrik mesede egiten dieten sistemak ere⁵.

8. Ikus-onespenak

19. Ikus-onespenari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritzako Ingeniari Teknikoen eta Nekazaritzako Perituen Elkargo Ofizialak Omnibus Legean eta elkargoaren nahitaezko oniritziari buruzko abuztuaren 5eko 1000/2010 Errege Dekretuan aurreikusitako ikus-onespenari buruzko araudi berria txertatu du bere estatutuetan.

Dena den, badira bertan jaso ez diren bi alderdi. Batetik, eta proiektu partzialak dituzten lanen ikus-onespenari buruzko 1000/2010 Errege Dekretuaren 3. artikuluan jasotzen den moduan, nahikoa izango da lana behin eta profesionalen elkargo bakar batek ikus-onestea —hark lanari dagokion arloko elkargo eskuduna izan beharko du—; beraz, ez da beharrezkoa izango hura osatzen duten dokumentu guztien ikus-onespen partziala egitea.

Bestetik, eta 1000/2010 Errege Dekretuaren 5. artikuluan xedatzen dena kontuan hartuta, arlo berean profesionalen elkargo eskudun

⁵ Horren adibide dugu, esaterako, Gaztela-Mantxako Farmazeutikoen Elkargoaren 639/08 espedientearen ebazpena. Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak lehiaren jokaera mugatzaile bat aitortu zuen, Lehia defendatzeko Legearen 1. artikulua debekatzeko duena, Gaztela-Mantxako Osasun Zerbitzuaren eta Gaztela-Mantxako Farmazeutikoen Elkargo Ofizialaren aldetik; haren arabera, Gaztela-Mantxako Farmazeutikoen Elkargo Ofizialek txandak zehaztuko dituzte, hala nahi duten farmazia-bulegoen artean, Osasun Sistema Nazionaleko farmazia-zerbitzuen zentro soziosanitario publiko eta pribatuei zuzenean hornitzeko.



bat baino gehiago daudenean, profesionalak horietako edozeinen aldetik jaso ahal izango du ikus-onespena.

20. Horrenbestez, aipatutako alderdi horiek **txertatzea proposatzen da**, horrela, lan profesionalen ikus-onespena mugatuko duen alderdirik egon ez dadin, horiek aurkezten dituen edo egiten dituen pertsonaren tituluaren arabera⁶.

9. Kode deontologikoa

21. Azkenik, 4bis artikuluko 1. puntuan jasotzen diren jarduera profesionalaren antolamendurako eginkizunen artean, jarduera profesionalak arau deontologiko batzuk bete behar dituela adierazi behar da, intrusismo profesionala saihestuko duten neurriak hartuz eta elkargokideen arteko lehia bidegabea galaraziz.

Xedapen hauek ez dira lehiaren aurkakoak, baina lehiaren mugak eragin ditzakete, eta beraz, horien erabilera eta garapena behar bezala zaindu behar da; izan ere, Lehiaren Defentsari buruzko Legea bete beharra ez da elkargoaren estatutuetara mugatzen, elkargoaren ekintza eta erabaki guztietara hedatzen baita. Kode deontologikoak eta elkargoaren barne-arauek ez dute, inola ere, ordainsarien koordinazioa erraztuko duen edo horien determinazio askea mugatuko duen elementurik gehituko, ezta profesionalen merkataritza-komunikazioetan mugarik ezarriko ere.

IV. ONDORIOAK

Lehena.- Elkargodun lanbideetan aritzen direnek lehia askean aritu behar dute, eta Lehia defendatzeko 15/2007 Legea bete behar dute, bere osotasunean.

⁶ Hitzarmen bidez ebatzitako Lehiaren Batzorde Nazionalaren S/0002/07 espedientean – Espainiako Arkitektoen Goi Kontseilua–, Kontseiluak hartutako erabaki murriztailea aztertu zen; haren arabera, arkitekto edo arkitekto tekniko batek sinatu behar zituen segurtasun- eta osasun-azterlanak, eta, ondorioz, gainerako teknikari guztiek sinatutako ikus-onespenak ukatu. Hitzarmen bidez hartutako erabakian, azterlanek horretarako eskumena duen edozein teknikariren sinadura izan zezaketela ebatzi zen, betiere horien eskumenak eta espezialitateak kontuan hartuta.



Bigarrena.- Edonola ere, elkargoek burutzen duten elkargodun lanbideetako jardunaren antolamenduak, interes korporatiboen defentsan ez ezik, elkargoetako kideen zerbitzuak kontsumitzen eta erabiltzen dituztenen interesen babesean ere oinarritu behar du, gizartearen asmo eta behar orokorrekin bat.

Hirugarrena.- Txosten honen bidez, Lehiaren Euskal Agintaritzak txosten honetan zehar aipatu diren elkargoaren estatutuetao artikuluak aldatu beharra planteatzen du.

Bilbon, 2013ko uztailaren 24an

LEHENDAKARIA
MARÍA PILAR CANEDO ARRILLAGA

IDAZKARIA
IBON ÁLVAREZ CASADO

KIDEA
NATIVIDAD GOÑI URRIZA

KIDEA
RAFAEL ITURRIAGA NIEVA